Handik aurrera oso pozik bizi izan zen helduei, haurrei eta zaharrei bere istorioa kontatzen.

OAIA HORTON ZUGAZAGASTI
1go Saria

Matraka, zerbitzari ausarta eta bihurria

Matraka izeneko neskatala Elorriion bizi da, 18 urte ditu eta mutilik baino ausartagoa da. Begiak zuhaitzen enborrak bezain marroiak ditu, masailak tomateak bezain gorriak eta ma-sailean zeuzkan pekak sagarren haziak bezain borobilak.

Galtzerdiak ez zituen berdinak eramaten, baizik eta desberdinak.

Behi, Matrakak 20 urte bete zituenean, eskola utzi zuen. Ausarta zenez, esan zuen:

—Zerbitzaria izango naiz! Horrela dirua irabaziko dut, eskola utzita.

Kalera irten zen eta «Katxalo» izeneko taberna batera joan zen. Orri batetan hau jartzen zuen: «Zerbitzari ausart bat behar da».

Matraka sartu eta karneta erakutsi zion eta esan zion buruzagiak:



—Zu kontratatuta zaude. Hau zure lana da!

—Aupa! Zer ondo! «Katzun-Katxin» —kantatu zuen Matrakak.

Lehenengo egunean jendea etorri zen eta esan zuen Matrakak:

—Nik Matraka izena dut.

Iseka egiten zion umea buruz behera jarri zuen Matrakak. Hura iskanbila sortu zena! Jainko maitea!

Orduan esan zuen nagusiak:

—Matraka, kalera!


Matraka irten zen eta burua makurtuta zerbait pensatzen hasi zen. Baina buru argia zuenez, berriz joan zen taberna berdine-ra, belaunikatu zen eta esan zion, malkoak begietatik zerizkiola:

—Barkatu, barkatu -esan zuen negar zotinka.

Orduan Matraka zerbitzaririk onena izan zen.

AINTZANE MORILLAS ARANBERRI
2. Saria

***Eguzkia
eta
Prexka
ahatea***



Behi, Prexka ahatea izeneko bati, uretan zegoela, tripako mina etorri zitzaison:

—Ai! Nire tripa! Nire tripa! Sekula santan baino min gehiago daukat! Ai, ai, ai!

Prexka protestatzen iritsi zen bere etxera eta pixka batean eserita geratu zen. Minutu batzu pasatu zirenean Prexka bere etxetik irten zen. Ezin zen mugitu ere egin. Bapatean Prexka-ren atzekaldetik pelota zuri batzu irten zitzakion:

—Baina zer da hau? Zer dira gauza zuri hauke? —esan zuen Prexkak haserreturik—. Orduan ulertu zuen zergatik zuen hain-bestea min. Berak ez zekien zer ziren gauza horiek, lehenengo aldiz bait zen horrelako gauzak ikusten zituela eta. Berriro bere putzura itzuli zen eta han utzi zituen pilotak.

Arraultzak ziren gauza zuri haien. Egun hartan eguzkiak asko berotu zuen eta arraultza haien ernaltza pentsatu zuen. Hogeitabat egunez egon zen eguzkia bere bero guztirekin. Batzutan laino bat edo bi jarri zitzakion gainean, baina segituan bidali zituen pikutara. Azkenean ahatakumeak irten ziren bost arraultzetatik eta bere amaren bila jarri ziren ilaran. Putzu batean aurkitu zuten bere ama eta hasi ziren:

—Ama, kua, kua! Ama, kua, kua!

Ahatea pentsatzen jarri zen, eta pentsatzen eta pentsatzen soluzioa aurkitu zuen. Gauza zuri haietatik horrelako bost ahate irten zirela. Ahateak ez zekien nork ernaldu zituen eta eguzkiak hitzegin zuen:

—Gauza zuri haien arraultzak ziren eta beroarekin ernaltzen dira. Zu ez zeundenez, nire beroarekin ernaldu ditut.

—Eskerrik asko! Orain bakarrik egan eta jaten erakutsi behar diet -erantzun zuen Prexkak eskerrak emanet. Handik aurrera Prexka eta eguzkia lagun handiak izan ziren eta aha-takumeak ere.

MARTA CONDE IRIONDO
2. Saria

Balsa batean ikastolatik ihesi

Gaur bezalako egun batean gertatu zen historia hau.

Jon, Ander, Mikel eta Josu anaiaiak ziren. Jonek 10 urte zituen, Anderrek 9, Mikelek 8 eta Josuk 11.

Ez zitzaien ikastolara joatea gustatzen. Hori zela eta, askotan piper egiten zuten eta hurrengo egunean irakasleak kriston errieta egiten zien. Irakaslea oso txarra zen, ikastetxeko txarrera. Irakasleak, piper egiten zuten bakoitzeko, hilabete bat jolasordurik gabe utzen zituen. Gurasoak ere ez ziren batere ongi portatzen beraiekin.

Horrela ezin zitekeela jarraitu eta ihesaldi bat prestatzea era-baki zuten. Arratsaldeko bostetan elkartu ziren ihesa prestatzeko eta honela esan zuen Josuk:

- Orain nola ihesi pentsatu behar dugu. Ideiarik ba al duzue?
- Autoestop egin genezake —izan zen Anderren erantzuna.
- Igerri egingo liguteke —esan du Mikelek.
- Balsa bat egin dezakegu! —ohiukatu zuen Jonek.
- Ni izango naiz kapitaina —esan zuen Josuk.
- Ongi da —esan zuten denek batera.
- Bakoitzak jateko zer edo zer aurkitu behar dugu —agindu zuen Josuk—.

Gero balsa eraikiko dugu hango zuhaitzeken.

Denek korrika aldegia zuten jateko bila eta lortu zutenean Josurengana joan ziren balsa egitera joateko. Eta honela esan zuen Josuk:

—Isilpean egin behar dugu balsa.

Denak isil-isilik sartu ziren basora. Han harri finekin kolpez-kolpe zuhaizka batzu bota zituzten, gero adarrak kendu eta adarrrez soka bat egin zuten, gero enborrekin eta sokekin lotu eta balsa bat egin.

Balsa ibaira jaurtiki, gainean jarri, janaria hartu eta abiatzera ziohazenean Josuk esan zuen:

—Arraunak falta zaizkigu.

Orduan arraunak egin zituzten, bakoitzak berea.

Balsa abiatu ziren. Denak isil-isilik zeuden. Arraunean ate-ratzen zuten zarata besterik ez zen entzuten. Laster bukatu zen isiltasun hura, «Aaaaah!» entzun bait zen urrutian.

—Han zerbait gertatzen da! —esan zuen Josuk— Goazen hara!

Denek alde hartara arraun egin zuten. Heldu zirenean bal-sa bazterreratu eta lurreratu egin ziren. Han agure zahar bat ikusi zuten. Agurea liburu bat idazten ari zen:

—Zer egiten duzu zuk hemen? —galdetu zuen Anderrek.


—Horixe galdetuko nizueke —erantzun zuen agureak.

—Guk ikastolatik ihes egin dugu eta hemen gaude —esan zuten lau mutikoek batera.

B MAILA

Ostadarren goraberak

Maiatzako astelehen eguzkitsu bat zen. Gu, beti bezala, ikastolara gindoazken. Beroa egiten zuenez, galtxa motzak, alkondara manka motxaduna eta zapatalak generamatzen jantziak. Pepe Luis, Pakita, Idoia eta ni ikastolako bidean gindoazela, urretxindor zauritu batekin egin genuen topo. Badakizu zer den urretxindorra: txori mota bat da, asko abesten duen txori mota bat. Bere kantua oso atsegigarria da eta kolore arreko, txori moko makurra da. Pena ematen zigunez han lurrean botata



—Oso gaizki egin duzue, hobe duzue itzultza —esan zien agureak— A! Nire izena Praixku da.

—Nirea Josu da, honena Ander, hemen berriz Mikel eta Jon —esan zuen Josuk.

—Eta zergatik esaten duzu itzultza hobe dela? —esan zuen Jonek.

—Begira, gauza bat kontatuko dizuet —esan zuen Praixkuk—. Ni ere zuek bezala etorri nintzen nire anaiekin, baina nire anaiaiak basoan galdu ziren eta balsa hondoratu zitzaidan. Orain dakizkidan gauza guztiak naturak erakutsiak dira. Nahiz eta gauza asko jakin, ez pentsa kosta gabe ikasirik dau-denik. A, eta majia egiteko ekarriko al zenizkidakete gauza batzuk?

—Bai, noski —erantzun zuen Mikelek.

—Ekarri behar duzuena hau da: bi armiarma, hiru musker eta lau sagar.

Denok oinez abiatu ziren basorantz; basoaren bihotzera heldu zirenean honela hitzegin zuen Josuk:

—Hemen hasiko gara gauzen bila.

Denok gauzen bila hasi zirenean, «Grrro-Grrrou!» entzun zuten.

—Zer da hori? —galdetu zuen Mikelek beldurtuta.

—Puma bat da. Hobe dugu ezkutatzea eta gero adar batez buruan jotzea —esan zuen Jonek—.

Esan eta egin. Puma han geratu zen lurrean, seko. Gauzak hartu zituzten, Praixkurengana joan eta eman zizkioten.

—Agur, Praixku —esan zuten denek batera—.

Balsa hartu eta ikastolara heldu zirenean, balsatik jaitsi, ikastolara joan eta zuzendarriari barkamena eskatu zioten. Handik aurrera asko ikasi zuten eta oso pozik bizi izan ziren.

BERNAITZ ARREGI LANDA
3. Saria

uzteak, hartu eta gurekin batera ikastolara eraman genuen.

Andereñok, nik eskuetan zerbait neramala konturatzean, gal-detu zidan:

—Zer dakarzu hor, Naia?

—Nik, ba, kalean aurkitu dugun urretxindor zauritu bat. Andereño Ane, geratu al daiteke urretxindorra gurekin eskolan bizitzen? —esan nuen nik beldurraren-beldürrez, ez zigulakoan andereñok utziko.

—Bai! Noski! —umore oso onez andereñoak—. Bainax guk

sendatzeko ahaleginak egingo ditugu eta hegan egin dezakeen ibilaldi bat antolatuko dugu eta urretxindor abeslari eder hau askatuko dugu mendian.

Orduan Pakitak:

—Andereno, baina, izen polit bat jarri beharko diogu, ez da ala?

—Bai, noski! Izen polit bat... Ea hasi izen polit eta disdiratxuak pentsatzen. Kontuan izan ezazue urretxindor hau emea dela.

Isilune unkigarri baten ondoren, arnasik gabeko isilunea Pepe Luisek apurtu zuen:

—Fernandito jarriko diogu izena.

—Esan dizuet bada emea dela, eta hori, Pepe Luis, arren izenda da, eta oso desegokia gainera —esan zuen andereñok—.

—Arkonada oso atezain ona denez, Arkonada jarriko diogu izena —esan zuen Pakitak.

Orduan andereñoa berriz garrasika:

—Emea dela!!!

—Pitxin —esan zuen Idoiak.

—Ez, Pitxin ez, Ostadar, kolore asko bait ditu —esan nuen nik.

—Beno, Pitxin eta Ostadar izenen artean aukeraketa egin behar da —esan zuen andereñok.

Bi orri-zati hartu eta batean Pitxin eta bestean Ostadar jarri zuen.

—Ea, Pepe Luis, etorri hona eta hartu bi tolesturiko orrieko bat —esan zuen andereñok.

Isilune apal baten ondoren, Pepe Luisek orri bat hartu eta:

—Hemen Ostadar jartzen du —esan zuen Pepe Luisek.

—Aupa! —esan zuen nik.

—Orduan, Naia, joan zaitez alboko botikara eta ekarri papel hontan jartzen dituen gauzak —esan zidan andereñok.

Papel hartzan ez nekien zer jartzen zuen, nik 5 urte bait nintzen eta oraindik ez nekien irakurtzen. Botikara joan eta esan nion:

—Esan dit andereñok hemen jartzen dituen gauzak emateko.

—Ea bada... Ur oxigenatua, merkromina, kotoi poltsa bat, 2 metrotako benda kaxa eta tirita kaxa bat.

Denboraldi baten ondoren eman zizkidan eta nik galdetu nion:

—Zenbat da?

—Zazpirehun eta berrogeitamar pezeta —erantzun zidan botikariak.

—Bilkar arte —esan eta ikastolaruntz abiatu nintzen.

Egun osoan ez genuen klaserik eman, denen artean Ostadarri sendaketak egin bait genizkion. Irteteko txirrina jo zuen, segituan abiatu nintzen etxerantz eta iritsitakoan ama eta aitari kontatzen hasi nintzen:

—Amatxo, aitatxo, ikasgelan urretxindor bat daukagu, Ostadar jarri diogu izena. Zaurituta aurkitu dugunez, sendaketak egin dizkiogu eta sendatutakoan, andereño Anek ibilaldi bat antolatuko du eta mendian askatuko dugu Ostadar urretxindor polit eta argia.

—Oso ideia bikain eta ona izan duzue, benetan —esan zidan amatzok.

—Bai, ideia bikaina —esan zuen aitak.

Handik hilabet baterarte guk Ostadarren zirinak etab. jaso behar izan genituen. Hilabete baterarte esan dut, orduan izan

bait zen ibilaldia, ekainaren 4an hain zuzen ere. «Mentxuri» ize-neko baso-parkera izan zen, 800 metrotako mendi maldatsu eta pinutsu bat. Goizeko 8etan atera gara «Karus» izeneko jendez betetako tabernaren aurretitik.

Gure ikasgelako lagun guztiak joan ginenean, gure janari, kantinplora, etab., guztiak gure motxilan generamatza. Bost t'erdiaik ziren eta gure askaria jaten ari ginela horrela esan zuen andereñok:

—Beno, hemen al zaude 21ok?

Denak han geundela konturatzean, zera esaten jarraitu zuen:

—Zuen askaria bukatu ondoren, hilabetez ikasgelan eduki dugun Ostadar urretxindor abeslari eta ederra, zuen artean kaiolatik atera, eskuak elkartu eta Ostadar askatuko duzue.

—Bale!!! —esan genuen denok batera, koroan egongo bagina bezala.

Askaria bukatu ondoren, nik kaiolatik atera nuen, denok eskuak elkartu eta aurpegiko bi lehioetatik euria zeriola, Ostadar askatu genuen.

Oso triste geunden, baina halako batean habi batera igo-tzen ikusia genuen eta bertan urretxindor ar bat bi kume trixte-rekin zeuden. Orduan, hori ikustean, pozik, alai eta lasai etxeratu ginen arratsaldeko 7etan.

Astean behin Ostadar bere bi kume eta bikotearekin gure ikasgelan azaltzen ziren, lagundu geniona eskertzen bezala. Horrela, Ostadarren kideari Pipo jarri genion izena eta bi kumeei Loretxu eta Pitxin.



Horrela izan zen ba, Ostadar eta bere sendiaren historioa.

NERE AROSTEGI KAREAGA
Igo Saria

Yolandaren diskenean misterioa

Yolanda Londonen bizi den emakume bat da, izatez, zitala eta ipurterrea, baina ezkerreko poltsikoan eramatzen duen whisky botilatik trago bat eginez gero, laister alaitzen da. Yolanda hirurogeitabat urteko andrea da. Bere zaletasunak hirurogeigarren hamarkadako diskak entzutea da, ez entzutea bakarrik, bilduma ere egiten du, berrogeitazazpi diskak ditu etxearen, eta hiru bankuan gorderik, importatetza bait du. Yolandak ez du senarrik ez eta seniderik, baina ba ditu lagunak: Pol Garbantzini italiarra da, detektibe pribatua. Beste lagun bat aita Joan da, hau Madriden jaoia da. Yolandak ez daki ondo italianoa ez eta gaztelera, beraz, ez ditu ongi ulertzten dagoen bere lagunak.

Gaur Yolanda San Pedro kale ertzean dagoen supermerkatura doa. Ez zaio hara joatea gustatzen, baina hilean behin joan beharra dago erosketak egitera.

Supermerkatutik irten eta zinemara doa, ohitura hau gaztetandik du. Gaur zinean «Bihotzeko tristura» filmea ematen zuen. Yolandari ez zaio gustatu.

Etxeratu denean, etxe guztia ipurdiz gora topatu du: sarre-rako mahaiko lorak botata, lanpara apurturik, armarioetako gauzak etxe guztian zehar sakabanaturik. Yolanda argia pizten hasi zenean, argi indar kableak apurturik zeudela ohartzen, telefona ere ez zuen funtzionatzen. Hori ikusirk, Yolanda bere altxor preziatuak ikustera joan zen. Ez zegoen diskarik, lapurtu egin zituzten. Yolanda zur eta lur zegoen. Kalea irten eta Poli dei egin zion, telefono kabinatik, noski.

Handik bost bat minutura Pol heldu zen. Yolandak harritu-

ta jarraitzen zuen.

Pol gauza denak astertzen hasi zen, lanpara nola apurtu zuen etab. Yolandaren logelara iristean ohe buruan paper bat zegoen, labanaz kateiaturik. Horrela zioen:

«Yolanda:

Hiru diskak falta zaizkigu. Ez ba dizkiguzu ematen, aita Joan hilko dur. Utzi diskak zure etxe azpiko telefono kabinan, gaur zortzietan. Oharra: Ez poliziariak ez eta detektibe pribaturik».

Hau irakurtzean, Yolandak, harriaduraz gain beldurra sentitu zuen, zeren aita Joan bere laguna zen, baina diskak ere nahi zituen.

Yolandak esne saltzailegan zituen bere susmoak, zeren hark bakarrik ezagutzen zuen Yolanda. Bere baitan pentsatzen zuen: Esne saltzailea oso berritsua da eta seguraski norbait kontatuko dio diskena.

Bitartean Polek oheburuan aurkitutako papera astertzera eraman zuen, baina ez zuen atzamarkarik.

Orduan Yolanda aita Joanez oroitu zen. Pol eta biak aita Joanez etxera joan ziren. Ez zegoen han. Bere etxea ere ipurdiz gora zegoen. Logela astertzen ari zirela, ohe azpian gordeta zuen agenda topatu zuten. Erdi apurturik zegoen, nahiko zaharra zen. Bertan aita Joanez egiten zuen guztia zetorren. Honeala zioen:

«Gaur bi gizon handik kalean jarraitzen ninduela iruditu zait. Batek bibolin kaxa bat zuen; besteak tronpeta kaxa bat».

Eta hurrengo orrian horrela jarraitzen zuen:


«Atzo jarraitzen ninduten bi tipoak ikusi ditut. Bibolin kaxa ireki zaio bati, eta metrailadora bat azaldu zaio».

Eta hurrengo horrian:

«Norbait sartu da etxearen, zarata handia ateratzen du, zerbaite hautsi da, orain...» Liburuan odol marka batzuk azaltzen ziren. «Aita Joan zauriturik dago» esan zuen Yolandak. Odol markak gero eta gehiago ikusten ziran. Polek haiei jarraitzea zela onena pentsatu zuen. Odol markak komunera zioazen. Komunean esparadrapoa eta gasa batzuk falta ziren, beraz, kura egin zioten aita Joani.

Polek Yolanda etxearen atzeako aldera eraman zuen atzeko atetik, pixka bat lasaitu zedin, oso urduri bait zegoen: batetik diskak bestetik aita Joan.

Eserleku batetan eseri ziren eta hodeieei begira hasi ziren. Bazingridun euria egingo zuela.



Ondoren behera begira jarri ziren. Esparadrapoa eta gasak zeuden odolarekin. Pol eta Yolanda odol marken atzetik abiatu ziren. Biea gauza bera etorri zitzaien burura: «Aita Joanez odola izan zitekeen».

Errepidera iristean desagertu ziren odol markak. Han, azkar abiatutako auto baten gurpil markak zeuden.

Polek eta Yolandak handik hurre zegoen deportetxe bateatik bizikleta pare bat hartu eta gurpilmarken atzetik abiatu ziren. Dendaria ez zen ohartu, bezero batekin hizketan zegoen eta.

Yolanda ez zegoen bizikletan ibiltzeko moduan. Urduri zeoen, taberna batean gelditu zen esnea hartzen. Polek bizikletan jarraitu zuen.

Pol etxe Zahar batetara heldu zen. Ez zen inor bizi bertan. Sabaia erortzeko zorian zegoen.

Pol barrura sartu zen. Baitzaileak ez zeuden han.

Ganbarara igo zen. Han gela zaharkitu asko zegoen. Polek dena mihatu zuen. Gela batean aita Joan zegoen.

Handik irten zuten. Aita Joanez gertatutako dena kontatuzion Poli, nahiz eta Polek zerbait jakin.

Yolanda bitartean, esnea hartzen ari zela, non azalduko eta deportetxeko dendaria. Yolanda beldurturik zegoen, eta ezkerreko poltsikoan zuen boteilatik edaten hasi zen. Dendaria eta Yolanda eztabaidan hasi ziren.

Pol eta aita Joan heltzean zeuden. Heldu ziren eta aita Joan hizketan hasi zen: «Bakez eta lasaitasunez hobeto ulertuko dugu elkar».

Azkenean bizikletak ordaindu behar izan zituzten.

Yolandak izugarrizko poza hartu zuen bere berrogeitazazpi diskak ikustean.

Aita Joan orduan hizketan hasi zen:

— Bahitu nindutenean etxe hontara ekarri ninduten, diskak non zeuden eta nor ziren entzun nien.

— Nor dira ba? — galdezu zuen Polek.

— Ba, «Musika Londonen» orkrestakoak dira. Orkresta hau hirurogeitahirugarren urtean fundatu zen eta horregatik nahi zituzten zure diskak, Yolanda.

Polek bere laguna zen Antoni Elviri deitu zion, «Musika Londonen» atxilotu zitzan. Eta hala egin zuen.

Yolanda eta Polek arratsaldero irteten zuten bizikleta berrikin paseiatzera.

Handik aurrera Yolandak diskak guztiak bankuan gorde ziuden, lapurtzeko beldurrez.

HALA BAZAN, SARTU DEDILA KALABAZAN ETA IRTEEN DEDILA GASTEIZKO PLAZAN.

ITZIAR ARREGI LANDA
2. Saria

PALO-PELO SOLDADUZKARA DOA

Palo-Pelo TXING TXONG erreinuan bizi zen, 3 anai arreba, ama eta aitarekin. Palo-Pelo bihurria zen eta beti bere taldeko lagunei zirkatu eta bribbonkeria egiten zizkien. Gabean amets bat izan zuen: SOLDADUZKARA ziohala alegia.

— TIN TON jo zuen etxeko tirrin zaharrak, pianu hondutauen soinua atereaz.

— Bai, nor da? Zer nahi duzue? Zertara zatozte?, galdezu zuen Palo-Peloren amak. Txingurri guztien erreginaren ordez gatoz, zure semerik gazteena Palo-Pelo alegia, soldaduzkara joan behar du, erreginaren hitzak dira. Hori esanda eta eskutitza Palo-

PALO - PELO SIRADU KARA DOA.



Peloren amari utzi eta gero, ondoko etxera abiatu ziren. Palo-Pelo kaletik itzuli zenean amak karta erakutsi zion:

—Hara, ama, norentzat da eskutitz dotore hori? Pertsona famaturen batena izango da, inork ez ditu zintatxoekin ekartzen ezta ere horrelako sigilurik. Hartu zuen eskutitza eta irakurtzen hasi zen. Hura irakurri zuenean zorabiatu egin zen. Amak orduan edalontzi baten ura hartu eta aurpegira bota zion. Orduan Palo-Pelo bakarrik hizketan hasi zen:

—Zer? nola? noiz? zergatik? gaur al noa? bihar? etzi?

—Ene ume hau zoratu egin da. Esan zuen amak eskuekin burua helduz. Medikuari deitzera zihotela, senarra agertu zitzzion. Galduen zion eta honek erantzun:

—Erreginak esan dit Palo Pelo ez bada soldaduzkara joaten, nire lanpostu berria galduko dudala.

—Ez zaitez arduratu. Palo Pelo soldaduzkara joango da eta ez duzu lanpostu berria galduko.

—Baina nik ez dut nahi Palo Pelo etxetik joatea, gelditzen zaigun seme bakarra da. Lehenengoa ezkondu eta hemendik alde egin zuen. Bigarrenoa zirkoan lana egitera joan zen eta hirugarrenoa hemendik oso urrun dago. Palo Pelo joaten bazai-gu ezin izango dut eutsi.

—Egia da, baina Palo Pelo soldaduzkara joaten bada, gizon bat eginda itzuliko da.

—Noiz joan behar du?

—Apirlaren 5ean.

—Zer egun dugu gaur?

—Apirlak 1.

—Zenbat ordu falta dira?

—96.

—4 egun beraz?

—Bai.

—96 ordu?

—Bai.

—Eta zenbat segundu?

—Mesedez, gizona, ez zaitez horrela jarri!

Palo Pelo esnatzen denean berarekin hitzegitera joango naiz.

—Ongi da, baina kendu itzazu malko horiek.

Maletak egin, lagun guztitaz agurtu, zor zuen diru guztia itzuli eta gurasoengandik agurtu zenean, autobusera igo zen. Lagunak egin zituan. Autobusean pentsatzen zegoen: TXING TXONG erreinutik nator eta garbi, ez nago inorekin zorretan eta hemen nago lagun berri batzurekin hizketan. Irtisi ziren kan-pamendura eta launaka jarri zituzten logela batean. Gabean bakoitzaz bere bizitzaz eta bizimoduaz hitzegiten hasi ziren:

Lehengoa TAO-TSAN izan zen eta honela hasi zen bere historioa «Ni Kiahoto herrian jaioa naiz. Seme guztien artean zaharrena. Burdinginta tailer batean egiten dut lan eta honi esker jaten dugu denok. Aitak arrantza egiten du eta amak perlak jasotzen ditu. Kihao hiria oso handia da, baina jolasteko eta dibilitzeko leku asko dago. Gabean diskoteketara joaten gara, baina askenaldi honetan ez naiz etxetik irtetzen.»

Bigarrena BAMBU izan zen eta hau ere honela hasi zen: «Ni Afrikako herri batean jaioa naiz. Han TAO-TANen bizimoduа errege batena da. Egunero lan egiten dugu lurrik erein, animalie jaten eman... han denetatik egiten dugu, baina beti lana eta alkarrak laguntzen diogu. Gu bost anai, ama eta aita bizi gara eta ni hirugarrena naiz.»

Hirugarrena MANOLO izan zen. Hau Madrilekoa zen eta honela hasi zen: «Nire bizimoduа TAO-TSANenarekin eta BAMBOrenarekin zerikusia dauka. Ni, ahal dudanean diskoteketara, dibilitzera eta denbora pasatzera joan naiteke. Txikia nintzenean elkarrizketa hau izan nuen aitarekin:

—MANOLO, lana egitera.

—Aita, baina gaur...

—MANOLO!

—Jope, aita!

—MANOLO... hirugarrenean makila.

—Ongi da, aita.

—Gaur lurra goldetu, garia erein eta artoa jaso.

—Bihar, orduan, festara?

—Ez, seme, bihar ere lanera, egun oso txarrak ditugu hauetan, negua dator eta janaria bildu behar dugu.

—Eta zertarako garia erein?

Udan ondo egongo delako.

—Eta zertarako lurra goldetu?

—Garia ereiteko.

—Txingurri guztiek egiten al dute hau?

—Noski!!

Laugarrena Palo Pelo zen, baina 7:30etako dianak jo zuen eta jeneralak esan zuen:

TIN...KO!!! EP EP EP

Baina orduntxe Palo-Pelo esnatu egin zen eta bere etxeen zegoela ikusi zuenean, oso pozik jarri zen. Baina norbaitek atea jo zuen:

—TIN TON jo zuen etxeko tirrinak.

—Bai, nor da? Zer nahi duzue? Zertara zatozte? galduen PAPO-PELOren Amak harriturik.

Txingurri guztien erreginaren ordez nator zure semerik gazteenak, Palo-Pelo, soldaduzkara joan behar du, erreginaren mandatua dira.

Orduan Palo-Pelo poztu egin zen, berak baitzekien soldaduzkara joan behar zela hauetako egun batetan.

Joan baino lehenago zor guztiak ordaindu zituen eta launaka jarritako taldeetan TAO-TSAN, BAMBU eta MANOLO tokatu ziren PAPO-PELOren. Orduan PAPO-PELO oso pozik jarri zen eta badeazpida ere zuzenbideak ezkatu zizkien.

TAO TSANerenaK

TAO-TSAN MAHAN TSUO
SINTSU kalea 12 ezkerra
Kihato (JAPON)

Manolorenak

MANOLO GARZIA SANCHEZ
C/. Alcalá de Henares, 8 eskubia
Madrid (ESPAÑA)

Bamborenak

BAMBO MALU KAMBO
MAHATA kalea 2 eskubia
(AFRIKA)

Palo Pelorenak

PALO-PELO
TXINGURRIN kalea 2º kobazuloa.
(Txing Txong erreinua)

ELISABETH ARRONA CARRASCO
3. Saria

Magoaren izena eta etxea

Demetri izeneko agure zahar bat eserita zegoen bere iloba gazteen artean. Denak amonaren etxe txiki eta poliean zeuden suaren aurrean. Egun horretan Demetrik 90 urte egin zituen, horregatik zeuden denak elkartuta.

Bapatean Demetriaren semeak hau esan zion:

- Ama, zergatik ez duzu kontatzen zure historiaren bat?
- Neska-mutil gazteenak ez zutela nahi adierazi zuten, esanaz:
- Jolastu gitezke «Tribial» jokuan.
- Ez daukadanez joku hori historio polit bat kontatuko dizuet.
- esan zuen Demetrik goxo-goxo.

Pixka bat pentsatu eta gero hasi zen kontatzen historioa.

— Bazen neska bat oso polit eta liraina Leila izenekoa, baina honek oso nota txarrak ateratzen zituen. Bestalde bazegoen neska bat oso jakintsua eta eskolako nota hoberenak ateratzen zituela. Hau Edia deitzen zen, baina hau oso itsusia zen eta honen ondorioz denek burlatzen zioten esanaz potola, surluze, belarrihandi, etab...

Demetrik begiratu zien bere ilobei eta denak lotan ziruditen, ezanaz bezela aspertuta zeudela bera kontatzen ari zen historioarekin. Bainha honek aldatu zuen pixka bat historioa ilobak esnarazteko. Eta jarraitu zuen bere historioarekin.

— Biak ez zuten nahi horrela jarraitu eta mago batengana joatea erabaki zuten. Mago horrek oso fama ona zuen inguruko herri guztietan. Denek esaten zuten, gauza harrigarriak egiten zituela.

Hau esan eta gero Demetriren ilobak esnatu egin ziren eta hau oso pozik zegoen, baina historioarekin jarraitu zuen.

— Herri batean gizon bat topatu zuten eta hitzegitzen hasi ziren berarekin.

— Egunon jauna. Ezagutzen al duzu magoa?

— Zer mago? — galdu zuen gizonak.

— Oso famatua den mago bat.

— Ah, magoa. Bai ezagutzen dut, ni askotan joaten naiz berarengana. — esan zuen gizonak.

— Orduan badakizu non bizi den — esan zuten neskek.

— Bai, noski dakidala non bizi den, nere laguna da.

— Esango al diguzu orduan non bizi den, mesedes — esan zuten neskek urduri.

— Nik ezin dizuet hori esan. Nik esango dizkizuet pista batzuk eta zuek asmatu beharko duzue non bizi den eta bere izeña, berarengana joateko.

— Ongi da; hasi zaitez pistak esaten.

— Hasiko naiz bere izenaren pistekin.

1º Bere izena oso ezezaguna da.

2º Ez du bokalik.

3º Bere izenak esanahia dauka.

4º Bere izenak, zuek nahi duzuen hizki kopurua izan ditzake.

Orain esango dizkizuet bera non bizi den jakiteko pistak.

1º Mendi batetan bizi da.

2º Bere etxea ez dago herri batetik hurbil.

3º Bere etxearen inguruan zuhaitz mota asko daude.

4º Bere ondotik errekatxo bat igarotzen da.

Nik ezin dizuet gehiago esan. Agur eta sorte ona izan.

— Agur eta eskerrik asko —esan zioten neskek gizonari, ezeratz konturatzen ez ziren bitartean.

— Beno, ba, goazen mendira, ea ikusten dugun etxe hori. — esan zuen Leilik.

— Ongi da, goazen mendira —esan zuen Ediak.

Joan ziren mendira eta oso nekatuta zeudenez harri handi batetan eseri ziren. Edia lotan gelditu zen, Leilik egarri asko zeukan, ezin zuen lorik hartu, baina bapatean jaiki eta esan zuen.

— Ura, ura!

Segituan Edia jaiki eta begiratu zuen bere laguna zihoa lekurantz. Eta esan zion.

— Baina Leila, ikusi al duzu hori? Zoragarria da! Bilatu dugu, bilatu dugu!

— Bai, gainera ur hau oso ona dago, freskua eta garbia — esan zuen Leilik, errekatxoko ura edaten zuen bitartean.


— Ez al zara konturatzen? Gizonak esan zuen «Bere ondotik errekatxo bat igarotzen da» eta hau da errekatxoa —esan zuen Ediak pozez zoratuta.

— Ah, bai! Hau da —esan zuen Leilik harrituta.

— Errekatxoaren bidea jarraitzen badugu, magoaren etxea aurkituko dugu —esan zuen Ediak.

Hau esan eta gero ibiltzen hasi ziren, baina gaua sartzen ari zen eta oso nekatuta zeuden biak, horregatik baso batean gelditu ziren. Han mota askotako zuhaitzak zeuden eta Ediak pen-

MAGOAREN IZENA ETA ETXEA



tsatu zuen han egongo zela magoaren etxea, zeren eta gizonek esan zuen «Bere etxearen inguruan zuhaitz mota asko daude». Bainak etxerik ikusten ez zutenez, pentsamendu hori burutik aldendu zuen. Gosea zutenez zuhaitzetatik fruituak hartu zituzten afaltzeko eta gero lotan gelditu ziren.

Hurrengo goizean biak jaiki eta fruituak hartu zituzten go saltzko asmoz. Bainak gizon makurtu eta zahar bat gerturatua eta esan zien:

—Zertan ari zarete hemen? Magoaren fruituak lapurtzen, ezta?

—Ez, guk fruituak hartzen ari ginen, zuri lana errazagoa egi teko, baina gu bagoaz ezta Edia? —esan zuen Leilik fruituak lurrean utziz.

—Orduan, hemen bizi da magoa? —galdezu zion Ediak makurtuari.

—Hori esan dut? Ba, ez da horrela, zuhaitz hauek neureak dira —esan zuen gizonak.

—Bale, orduan gu bagoaz. Agur —esan zuen Ediak.

—Eskerrak zure onera bueltatu zaren —esan zuen Leilik leku hartatik urrutiratzen ziren bitartean.

—Baina ez gara hemendik joango. Gizon horrek esan du magoaren fruituak. Orduan magoa hemen bizi da, eta hemen bizi bida gizon horrek eramango gaitu berarengana —esan zuen Ediak, Leilari gauzak esplikatu nahiean.

Eta bi neskak han gelditu ziren zuhaitzen artean gizonak zer egiten zuen ikusten. Gizonak fruituak hartu eta harri bat zapaldu zuen bere zapata potoloekin. Gero, magiaz bezela, lurrean, belar tartearen, ate bat zabaldu zen eta hau entzun zen.

—Baina neska batzu daudela hor —esan zuen norbaitek ate barrutik.

—Ez, mago jauna, nik despistatu ditut —esan zuen gizonak harro-harro.

Eta orduan neskak erten ziren zuhaitz atzetik eta ate hortarria abiatu ziren.

—Harrapatu zaitugu, mago jauna —esan zuten neskak oso pozik.

—Beno, harrapatu nauzue baina oraindikan ez dakizue zein den nere izena. Ona izango naiz eta nere etxera sartzen utziko dizuet. Sartu zaitezkete gela honetan, ni sukalderra noa edari batzuk prestatzen. Bakarrik ordu bat emango dizuet nere izena asmatzeko —esan zuen magoak gela hortako atea isten zuen bitartean.

Bi neskak gelan sartu ziren, han aulkia batzuetan eseri eta

pentsatsen hasi ziren. Denbora luzean egon magoaren izena asmatu nahiean, baina alferrik, ezin zuten asmatu. Bapatean sukaldetik zarata ikaragarria entzun zen. Ematen zuen etxera erori behar zela. Orduan Leilik gelako atea ireki eta esan zion magoari.

—Sssssssss.

—Nola arraio asmatu duzue nere izena? —esan zuen magoak harrituta.

—Orduan Sssssssss da zure izena. —esan zuen Ediak.

—Bai, hala da. Asmatu duzutenez, pasa zaitezte gela horretara eta hor hitzegingo dugu zuen arazotaz —esan zuen magoak.

Hirurak joan ziren gelara eta han eseri ziren.

—Zuen arazoa zera da, biak lirainak eta jakintsuak nahi duzuela izan, eta hori ezin da.

—Eta zuk nola dakizu hori? —galdezu zion Ediak magoari.

—Edia, ni magoa naiz eta dena dakit. Segitzen dugu zuen arazoarekin. Bainak biak bikainak izatea ezin da. Konformatu behar zarete daukazuenarekin. Adibidez zu, Leila, oso liraina zara, horregatik beti edukiko dituzu gizonak zure atzetik.

—Baina ni neska-zahar geldituko naiz —esan zuen Ediak, ia negarrez.

—Zu, Edia, ez zara liraina izango, baina bidai honetan argia zarela erakutsi didazu, eta horregatik beste gauza batzuk edukiko dituzu zure atzetik. Zeren eta liraintasuna ez da bizitzako gauza bakarra —esan zuen magoak.

—Orduan ez digu ezertarako balio honera etortzeak? —galdezu zioten neskak.

—Bai, noski. Orain lagunak zarete, oso lagun onak gainera. Lehenago ezin zineten ezta ikusi ere egin eta orain berriz. Nik emango dizueten erremedio bakarra hau da: Biak elkar laguntzea.

Bi neskak bere herrira bueltatu ziren, eta handik aurrera Ediak Leilari lagunten zion nota hobeagoak atera zedin, eta Leilik Ediari makilaia asko uzten zizkion lirainago egon zedin.

Demetrik begiratu zien bere ilobei eta denak lotan zeuden, baina ez aspertuta zeudelako logurea, zutelako baizik. Orduan Demetrik bere seme-alabaz lagundurik ohera eraman zituen guztiak.

NEREA SOTO APERRIBAY
3. Sarria

D MAILA

Bihotzaren nahia

Sofia Italian bizi zen, Careli izeneko herri batean. Nahiz eta bertan jende gutxi bizi, udan kampotarrez betetzen zen, edozein lekutatik etorritakoak. Turista hauek Eguzkia bilatzen zuten, eta Carelin soberan zeukaten. Gainera, herri honetan, kristauak egindako katakunbak zeuden, historia eta gertakizun garrantzitsuz honnituak, eta bertan gure gaurko doktrinaren seaska. Katakunbak aparte, herri honek ez zuen beste gauza bitxirik. Bere etxeak zaharrak ziren eta bertako biztanleak nahiko behartsuak, alkatea ez ezik. Hau oso patxara haundian bizi zen, bere emazte dotorearekin, eta herriko jendeak ordaintzen zuen zergen dirua bere jantzi apain eta garestietan erabilten zuen.

Carelin edozein motatako jendea bizi zen, egunero elizara joaten den amona zahar haietako batetatik, alkohol eta drogetan ibiltzen den mutiko gazte batetaraino. Bi mundu desberdin hauen tatean, Careliko populo gehiena zegoen: irakasleak,

etxeko andreak, hauen senarrak, kanpoan lan egiten duten amak, eskoletako neska-mutilak eta aste bukaeretan etortzen diren unibertsitateko ikasleak.

Sofia Careliko plazaren alboan bizi zen bere guraso eta bi anaiek. Careliko eskola publikoan ikasten zuen, bere betiko lagun zaharrarekin batera, Marinarekin. Beti elkarekin zeuden, eta bakoitzak bestearen sentimendu sakon-sakonak eta sekretu guztiak bazekizkien. Gelan, bata bestearen alboan eseririk, beti parreza zeuden, bestu mundu urrun batean murgildurik.

—Marina... Sofia... mesedez, isilduko al zarete? Behintzat gaur mesede hori egin behar didazue, gai hau nahiko zaila da —esaten zuten irakasle guztiekin —, eta zuen lagunek ez dute ezer entzuten.

—Ongi da. Ez keskatu, gaur ordu osoan isilik egongo naiz.

—Baita ni ere!

—Gaur festa egin behar dugu! Marina eta Sofia isilduko dira!
Ja, ja, ja...

Bai, horrelako gauzak gertatzen ziren Sofiaren gelan, baina hau dela eta, beraien notak nahiko txarrak ziren.

—Sofia! 8-tik 4! 4 suspentso 17 urterekin! Ez dakit nola ailegatu zaren kurso honetara, baina ikusten ari naiz hemendik ez zarela pasatuko!

Baita Marinaren etxearen:

—Marina!... pentsa dezakezu nolakoa izan behar duen zure etorkizunak, nota hauek aterata!!! Eh!

Hauen antzerakoak ziren beti notak ikusi eta geroko eztabaidak, baina ala ere, nahiz eta momentu txar hauek egon, Marina eta Sofiaren bizitzaz nahiko alaia zen. Arratsaldero biak kalera irtezen ziren bueltatxoz bat ematera. Parkera iristen zirenean eserleku bat bilatu eta bertan orduak eta orduak igarotzen zituzten hitzegiten. Arratsalde batean, bere gauzetaz hitzegiten zeudelarik, zerbait gertatu zitzaion Sofiari. Bere masail ilunak gorritzen hasi ziren, gaua bukatu ondoren egunsentia ailegatzet den eran, eta bere eskuetatik, zerutik euri tantak erortzen diren bezala, izerdia ateratzen hasi zen. Bere begi marrroiak leku batean zeuden josita, gesi bat bezala.

—Eh! Sofia! Zer da? Tomate kolorea hartu duzu!

—Marina, begira ezazu horra. Ezan, zer ikusten duzu?

—Mm! Bai!! Beste gelako mutil berria. Oh! Ez didazu esango mutil hura gustatzen zaizula??!

—Beno, ba nik... esango nuke baietz.

—Zergatik uste duzu hori ba?

—Buf! Oraintxe ikusi duzu. Bera... hau da. Eros hurbiltzen zaidanean izerdia eta tomate kolorea azaltzen zaizkit.

—Hurbildu!!! Ja, ja... Bainan... gutxienez 30 metrotara dago! Orduan zer gertatuko zaizu zure aurretik pasatzen bada!

—Ez parre egin, mesedez, bihotzeko gauzak ez dira bromazkoak.

Eros oso patxara haundiko mutila zen. Begi urdinak zituen itsasoko olatuen antzera, eta ilea izarrik gabeko gaua zen. Oso aurpegi alaia zuen eta nahiko altuera handia. Gaua guzti hauek izan ziren Sofiak mirestu zituenak. Egun hartatik aurreera, Sofia Eros ikusten zuen bakoitzean gorritu egiten zen eta honek Sofiari begirada luze bat botatzen zion, irrifarre txiki bat oparituz. Horrela, piskanaka-piskanaka, kalean ikusten ziren bakoitzean, beraien begiak aurkitzen ziren, baina orain Sofia ez zen gorritzen, baizik eta beste irrifarretxo bat botatzen zion. Nahiz eta horrelako gauza liluragarri bat jaio bakoitzaren bihotzean, ez zuten inoiz elkarrekin hitzegin. Bainan egun batean, Marina eta Sofia kalean zeudelarik, Eros ikusi zuten. Marina Sofia begiratzen hasi zen parrea aguantatu ezinik, honen aurpegia liluraturatza zegoelako, eta gainera tonta itxura jartzen zuen. Orduan, ia konturatua gabe, Eros bere aurrean jarri zen, hitzegiteko nahian, eta horrela hasi zen:

—Soia, nere aitak lan berria aurkitu du, baina Carelitik urrun.

Sofiak ez zuen ezer esaten, ametsetan zegoela pentsatzen zuen eta.

—Badakit ez zaizula gustatuko esan behar dizudana, baina ezin dut ezer egin hau konpontzeko. Sofia... Carelitik joan behar dut. —Eta hau esanez, musu bat eman zion masailean, leku hartatik betirako desagertuz.

Marinak orain ez zuen parrak egiten. Ez zion ezer esan, aurpegia nahiko zen bere sentimendua azaltzeko. Bere bihotzak indar aundiz taupatzen zuen, inoiz egin ez zuen eran, eta bere begiak, urez beteta dauden lainoak bezala, malkoak botatzen hasi ziren. Orduan Sofiak bere eskua altxatu eta fintsun haundi batez, bere gorputzean bizia zeukan leku bakarra ikutu zuen, masaila, Erosek musua utzitako masaila. Marina ikusten ari zen Sofiak nola egiten zuen negar, eta aguantatu



ezinik, besarkada haundi bat eman zion bere negar-sotinak geldiarazteko. Horrela izan zen Eros ikusi zuen azkeneko eguna, iluna eta goibela, Eguzkirk gabekoa, gaua bezain beltza, non ilargia bere masailean kokaturik zegoen.

Hilabeteak pasa ziren eta piskanaka-piskanaka Sofia bere alaitasuna berreskuratzen joan zen. Eros ahazten ari zela zirudien, baina batzutan, bere familiakoeak jakin gabe zergatik, negarrez hasten zen, bere semea galdu duen ama bezala. Hala ere, hau gutxitan gertatzen zen, bakarrik Erostaz pentsatzen zuenean, eta hau ez egiteko Marinak asko lagundu zion. Batzutan zinemara eramatzen zuen, beste batzutan baloi zahar batetik beraiek bakarrik futbolean jolasten zuten. Hauen antzerako egun batean hitzegiten zeudelarik, gizon bat txartel haundi batzuk jartzen ikusi zuten: «Gaur 10etan munduko abeslaririk ospetsuena ikusiko duzue futbol zelaian: Frederic Smith. Ez ahaztu, gaueko 10etan.»

—Futbol zelaian?! Ja! Nere etxetik ikus dezakegu —esan zuen Marinak—. Azkar joan gaitezen zure aita abisatzeria.

—Bai, goazen!

—Eskerrak Jaungoikoari! Sofia lehen bezain pozik dago... baian ala ere, ez dut uste Eros ahaztuko duenik —esaten zuen Marinak berekiko, Sofiarekin batera korrika egiten zuen bitartean.

Gaueko 10ak ailegatu ziren eta futbol zelaia bete-betea zegoen, baita inguruko etxeetako balkoiak. Han zeuden Marina eta Sofia parrezka eta parrezka, jakin gabe zergatik. Orduan, ezkenatokian abesti bat jotzen ari zirela, Frederic irten zen. Neska guztiak deihadarka hasi ziren hau ikusi zutenean, baita Sofia eta Marina ere. Horrela Frederic abesten hasi zen, alde batetik bestera mugituz, bere atsekaldean ortzadarraren kolore guztiak dantzan egiten zuten bitartean. Oso ondo igarotzen ari ziren gaua, baina kontzertua bukatu zen. Orduan jendea, neskak batez ere, tristura haundiz irtezen hasi ziren futbol zelatik, eta Sofiak minutu bat isilik egon ondoren, horrela esan zion Marinari:

—Marina, abeslaria izango naiz.

—Zer??!

—Entzun duzuna. Nik Frederic horrek baino ahots polit eta gogorragoa daukat. Gainera badakit non egiten dituzten fro-

ga hauek. Edozein abestiren musika hartu eta ensaiatu ondoren, frogatua joango naiz.

Esan eta egin. Bi hilabete pasa ondoren frogatua hori egiteko prest zegoen, eta gainera nahiko ondo egiten zuen. Bere gurasoek ez zioten ezetz esan eta horrela, hauetan agurtuz eta bere anaiei musu bat emanet, autobusa artu zuen bere herritik hurbil zegoen hiri batetara joateko. Autobusa irten zenean kaletik ikusi zuen Marina korrika agur esanez. Sofiak ere agurtu zuen, musu bat botaz.

Bi ordu pasa ondoren hirira alegatu zen. Hemen frogak egiten zituzten lekuak bilatzen hasi zen, berehala aukitzuz. Teatro Zahar bat zen, erdi eroria, eta bere paretak Miró-ren koadro baten antzera zeuden margotuta. Ate Zahar bat ireki eta bertan ikusi zituen beste mutil gazte batzu frogatua egiteko prestaturik. Hala ere nahiko jende gutxi zegoen, denak oso urduri. Sofia egurrezko aulkia Zahar batetan eseriz zen, bere inguruan zeuden paretak begiratuz. Hauetan zikin-zikinak zeuden, inoiz garbitu ez bazituzten bezala. Ia konturatu gabe denbora oso azkar pasatu zitzaion eta bere txanda alegatu zen. Poltsikotik kasset baten zinta atera eta poliki poliki eskenatokira irten zen. Hemen ahots bat bakarrik entzuten zuen, beste guztia ilundadea.

—Azkar, neska! Ez daukagu denbora asko! Hasi zaitez!!!

Sofiak zinta bere alboan zegoen radio-kasset moduko batetan sartu eta musika hasi zenean, bera ere abesten hasi zen. Nahiz eta oso urduri egon, berak uste zuen baino hobeto abesten ari zen, eta ahalegin guztiak egiten zituen geror eta hobeto abesteko. Bere buruak ez zuen ezertan pensatzen, hutsik zegoen, eta bere begiek iluntasun bukaezin hartara begiratzen zuten. Horrela bere eskuak izerditan zeudela amaitu zuen abes-tia, jakin gabe zer egin. Eta:

—Oso ondo!... Nondik atera duzu ahots zoragarri hori?!

—Bueno, ba... zera...

—Bai, bai, bai. Begira, ni abeslariak aurkitu eta laguntzen ditut, eta horixe bera da zurekin egingo dudana.

—Bai??!!

—Bai. Begira, bihar hemen behar duzu arratsaldeko 4tan. Zure irudiak aldaketa batzu izango ditu.

Sofiak ezin zuen entzuten ari zena sinistu. Bere zinta hartu eta alaitasun haundiz irten zen teatrotik. Abesten ziohan eta ahots ezezagun horrek esandako errepikatzen zuen. Etxera alegatu zenean ia festa haundi bat egin zuten Marinarekin batera, denak abesten eta dantzatzen zutelarik. Zoro etxe bat zirudien, baina etxe horren barruan zeudenak ez ziren zoroak, baizik eta biziz eta alaitasunez beteriko pertsonak.

Hurrengo eguna alegatu zen. Denak musu batez agurtu eta autobusean sartu zen. Berri zirira alegatu zenean teatrora joan zen. Hemen lehenengo aldiz iluntasuneko ahots ezezaguna aurrez aurre ikusi zuen. 40 bat urteko gizona zen. Bigote eta ile beltza zuen eta nahiko sudur luzea. Seriotasun haundiko pertsona zirudien, baina hala ere irrifarretxo baten bidez honela esan zion:

—Kaixo! Harritzen al zara ni ikustear?

—Oh, ba, pixkat bai.

—Beno, utz ditzagun gauza horiek alde batera eta goazen zure irudiak aldaketa egitera.

Ordu batzu pasa ondoren Sofiaren irudia guztiz desberdina zen. Autobusa hartu eta bi ordu gutxi gora behera pasa ondoren Carelira iritsi zen. Hemen familiakoak eta Marina Sofia itxaroten ari ziren, eta autobusetik jaitsi zenean denak aho zabalik gelditu ziren. Lehen Sofiak beti prakak erabiltzen zituen, orain gona beltz bat zeraman, eta gainera oso ondo gelditzen zitzaion. Bere zapatak, gona bezala, beltzak ziren eta oso takoi haundikoak. Ilea horiz tindatu zioten, eta hau behintzat ez zuen moztu. Bere aurpegia margotuta zegoen, baina ez asko. Hala ere, nahiz eta gutxi margoturik egon, oso eder zegoen alderdi guztiak. Sofia Eguzkia bezain ederra eta loreak bezain dotorea zegoen.

—Hau al da nire alaba?

—Gustatzen al zaizue nire «look» berria?

—Uau!! Miresgarri zaude!

Hauetan ziren Sofiari emandako kritikak, denak oso onak. Sofiak emakume berri bat zirudien, xarma eta edertasunez jaotako emakume berri bat. Bera ere oso ondo sentitzen zen bere irudi berriarekin, eta gainera munduko abeslariak ospetsuena izango zela pentsatzen zuen, baina hau lortzeko lan haundia egin behar zuela bazekien. Horrela lehenengo egunetik aurrera gogor hasi zen. Hasieran bere LP-ko abestiak doinuak ikasten hasi zen eta aste batzu pasa ondoren grabaketa hasi zen. Hemendik aurrera Sofia estudio batetik bestera ibiltzen zen. Bere izen artistikoa «Sofia» izango zen, berarentzat beste izen ego-kirik aurkitzen ez zutelako. Hiru hilabete pasa ondoren grabaketa bukatuta zegoen, eta orain argazkiak egin behar ziren. Hau izan zen Sofiari gehien gustatu zitzaiona, agian hemen askatasun gehiagorekin ibiltzen zelako, eta batez ere jantzi eder asko ipini zituelako.

Frogaren egunetik ia urtebetetra LP-a guztiz bukatuta zegoen, eta kalitate haundikoa zen gainera. Orain telebistan irten behar zuen. Hau ere asko gustatu zitzaion, baina lehenengo aldiz irten zenean, hori bai nerbioak! Ezin zen gelditu, alde batetik bestera mugitzen zen, euli txiki bat bezala. Hala ere gazteen artean arrakasta haundia lortzen ari zen. Horrela, pixkanaka-pixkanaka bere diska eta kassetak saltzen hasi ziren. Telebistan geroz eta gehiago irtetzen zen, baita egunkari eta errebis-tetan, eta hauetan oso kritika onak egiten zituzten Sofiari buruz. Hau horrela izanda, Sofia diru asko irabazten hasi zen, inoiz amestu ez zituen diru kantitateak orain berarentzat ez ziren ezer. Baina diru honen kulpaz bere biziko gauzarik txarrenetako gertatu zitzaion. Egun batean, kaletik ziohala, betaurreko haundi batzu jantzirik jendea ez ezagutzeko, kotxe gorri batetik gizon maskaratu batzu irten ziren. Pistola txiki batzuk zeuzkaten eskuetan eta momentu batean Sofia kotxean sartu zuten.

—Baina zer gertatzen da?!! Nor zarete zuek?!!

Hauetan ziren Sofiak esandako azkeneko hitzak, ahoan oihal zati bat ipini ziotelako. Horrela etxe Zahar batera eraman zuten eta bertako gela txiki batean sartu. Sofiak ezin zuen sinistu gertatzen ari zitzaiona. Jakin gabe zertan pentsatu, gela Zahar hura begiratzen gelditu zen. Ez zeukan leihorik handik ihes egiteko, ezta aulkirik eseritzeko. Lau pareta ziren gela hori osatzen zituztenak eta baten erdian egurrezko ate bat zegoen, baina kampotik itxita. Paretetan, duela gutxi paper txuri jarri zutela zirudien, oraindik oso garbia zegoelako. Sabaian lampara zikin bat zegoen eta honen kulpaz ematen zuen argitasuna oso txikia zen. Orduan Sofia pentsatzen hasi zen:

—Eta dirua ez badute nahi?!! Eta hiltzen banaute!! Jauna, zuk ez diezu hori egiten lagako, ezta?! Ezta?!!

Hau pentsatzen ari zen bitartean polizia bere bila hasi zen, nahiz eta denbora gutxi egon agertu gabe, kalean hartu zutenean gizon batek dena ikusi zuelako. Baina hau kanpoan geratzen zen bitartean Sofia erdi erotuta zegoen. Oihuka hasi zen eta ostikadak ematen zituen pareta guztiak. Azkenean, hain gogor jotzen zuelarik, bere zapatak apurtu zituen, baina orduan poliziaren sirena bat entzun zuen, baita pistolen tiroak, bere burua apurtzen zuelarik, eta azkenik isiltasuna. Orduan bere atea ireki eta bere aurrean polizia baten gorpua ikusi zuen odo-lez beteta, eta esuan heriotzaren egilea zuelari, Sofiak bere eskuetan aurpegia tapatu eta etxe madarikatu hartatik irten zen atzera begiratu gabe. Kampora irten zenean polizia batzu ikusi zituen eta Eros!! Ezin zuen sinistu. Berarengana joan zen korrigan eta besarkada haundi bat eman zion, musikako mundua lagako zuela eta betirako berarekin gelditu behar zela esanez. Eta hori bera izan zen egin zuena, berari lortzea hainbeste kostatu zitzaion mundua utzi eta bere bihotz erdiarekin herri batera joan zen bizitzen, zergatik sekuestratua izan zen galde-tu gabe, bakarrik bere bihotzaren nahia betetzen.

Amets gaiztoa

Eguna argitu du. Eguzki izpiak zorrotzak dira eta gaur ere bero haundia egiteko itxura du. Nik galtza bakero batzuk eta alkondara argi bat jantzi ondoren banoa kalean zehar norbait aurkitzeko asmotan. Bat batean, etxe bat berriztatzen ari direla ikusten dut, goruntz begiratzeko denborarik gabe, nire inguruan jendearen buila eta marmarra entzuten dut, baina ezin dut hitzegin. Ahots bat entzuten da larriki laguntha eskatuz. Berrehala anbulantzi baten zarata entzuten da. Esku indartsu eta sendo batzuek altxatzen naute eta banoa ez dakit nora.

Eritegi batera iritsi naiz, nire inguruan zuriz jantxitako jende asko dabil. Batek dionez odol asko galdu dut era zauria sakan da. Beldurtu naiz. Hil egingo ote naiz!

Handik denboraldi batera nire inguruan negarra eta garria besterik ez da entzuten. Ene bada, hil egin naiz! Nire sendikoen samina nabari da. Deiadarr luze bat egin nahi dut, hilera ez nagoela adierazteko, baina ezin dut. Zapi txuri batez estali naute eta etxera naramate. Zaitasunez etxeko eskailerak igo dituzte, nire gorputz astuna igo ezinik.


Dena prestatua dago, hil kutxa ilun batetan sartzen naute, nire inguruan lore gorri batzuk jarri dituzte eta eskuak gurutzatu dizkide. Explikatu ezinezko sentzazio bat dut. Alde batetik konturatzen naiz jendeak maite ninduela eta horrek benetako poza sortarazten dit. Bestalde nahigabe haundi bat dut nire barnean mundu hontako gauzak bukatu zaizkidalako. Ezinezkoa da! Oso gaztea naiz oraindik! Eta gero zer!

Bat batean, mundu hontako bizitzaren ondoren zerbait aurkituko ote dudan pentsatzen hasten naiz. Eta ez badago ezer? Eta zerbait badago? Berehala gure aiton-amonek esaten zigutena buruarta zait. Beti gogorarazi ziguten zein garrantzitsuak ziren Jangoikoari egiten genizkion errezuak. Egia esan nik nere bizitzan txorakeritzat jo ditut gauza horiek, bina orain Jangoikoari errezzuren bat eskaintzeko garaia iritsi dela uste dut. Beste gauza guziekin ahaztuz, beste bizitza berri bat eskatzea pentsatu dut, ahal izanez gero hobeagoa, txarragoa izatekotan ez bait dut nahi bizi.

Nigarrez ari naiz, malko sendoak ditut. Baino ez al dute ikus-ten nire nigarra! Ez nago hilda! Atera nazazue hemendik!

Nire deiadarrak ez ditu inork entzuten. Inguruan erosarioa ari dira errezzaten nire animaren alde. Gau guzia jendez inguraturik nago. Eskerrak ez nautela bakarrik utzi!

Eguna argitu da, jende desberdina sumatzen dut alboan. Hil kanpaiak gogor hasi dira jotzen. Azken bedeinkapena eman ondoren hil kutxa itxi dute. Oso ilun dago, ez dut ezer ikus-



ten. Arnasa hartza zailagoa ari zait egiten. Zoratu ote dira? Ez naute ba lurperatuko!

Abesti eta nigar artean eliza erdian aurkitzen naiz. Posible ote da hau! Besteak ere hiltzen direnean gauza guztiak ikusi eta sentitzen dituzte! Ohizkoan den bezala hilketetan, oso neska ona eta jatorra naizela entzuten dut. Horrek ez dit inongo poztasunik sortarazten, antzerki saio baten aurrean gaudela gororazten dit eta herriko gaizkilerik haundieta ere ona izaten bait da hiltzen denean.

Apaiak zenbait eskari egin ondoren banaramate hilerrira. Hemen bukatuko da dena! Ez naiz gehiago egongo mundu honetan!

Hau da sustoa! Bat batean esnatu eta konturatu naiz amets bat besterik ez zela. Eskerrak bizirik nagoela!

NAIARA SOROZABAL MENDIZABAL
2. Saria

Bi bihotzen arteko dansa

Maiteren gorputz liraina haizearekin batean mugitzen zen. Bere ile beltz laahunak mugimendu eder eta polikia egiten zuen bitartean, begiek dantz misteriotsu hura dantzatzen zuten, doinu bat entzuten zuenean bere gorputz guzia hasten zen mugimenduan, begi guzietan mirespena ageri zelarik.

—Bat, bi, hiru eta gora; bat, bi, hiru eta bera eta orain bira bat eta beste bat!-ari zen esaten dantzako maixua.

Maite neka-neka zegoen egina bi ordutan dantza egin ondoren, baina bere bizian ikasi zuen gauza askoetatik ondo zekien «bizi honetan zerbait nahi baduzu, izerdia bota beharko duzu» jakitea zen. Berak hori ondo zekien eta horregaitik ez zen kexatzen.

Dutxa hotz bat hartu ondoren, berria bezala gelditzen zen, urak hainbeste kostatutako izerdia eramatzen ikusten zuen bitartean, baina bihar ere berdin gertatuko zen. Hori bazekien berak. Hain zeukan bizi monotonoa! Egunak joan eta egunak etorri beti berdina zen. Ez zegoen gustora. Bere buruan galdera bera zuen egunero:

—«Zergaitik? Hau nahi izan dut nere bizi osoan, zergaitik ez naiz ba zoriontsu?»

Maite denentzat isila eta ezezaguna zen, baina Jon-ek bere barnean sartu nahi zuen.

Jon Maiteren mireslerik handiena zen. Jonen begi berdeek Maiteren gorputza miresten zuten, baina beraien begiak elkarren zirenean ezin ziren elkartu eta bira ematen zuten. Jon eta Maitek elkarrekin dantz egitean, airean, aire ezberdin eta be-roa arnasten zen. Jon zoriontsua zen bere beso gihartsuak Maiteren gorputza heltzen zutenean. Jon ezberdina zen Maiteren-tzat, eta berak bazekien.

Behin Jonek esan zion Maiteri:

—Nahi al duzu nere etxera etorri arratsaldea pasatzera?

Maite harriturik geratu zen, baina...

—Zuk nahi baduzu —erantzun zion.

Jon pozez zoratzen zegoen azkenean neska misteriotsu hura konkistatuko zuelako. Neska haren bihotzeko atea jo zuen. Orain itxaron egin behar zuen zabalduko edo itxiko zuenaren zain.

Han pasatu ziren biak elkarrekin, begi jakiminen aurretik, batere kasorik egin gabe, bien bihotz barruan zerbait gertatuko zela sentitzen zuten bitartean, zer zen jakin gabe.

Handik aurrera egunero hasi ziren irteten.

Maite oso zoriontsu zen, hainbeste amestu zuen gauza ezezagun hura lortzen ari zela jakinik.

Jon kezkaturik zegoen ez baitzekien nola jokatu berarekin, baina pozik Maiteren alboan zegoelako.

Jon egun batzuetan ez zen dantza klaseetara azaldu. Maite eta bere artean zegoen erlazio aztertu eta sakontzeko hartu zituen egun hauek.

Maite aldiz, triste zegoen, berriro bakarrik geldituko zen bel-durrez. Ez zuen Jonen desagerketaren azalpenik aurkitzen eta goibeheraldiaren atea irekitzen ari ziren.

Halako batean bere etxe aurrean aurkitu zuen Jon auto batean. Bere esku samurretilk heldu eta ezer esan gabe autoan sartu ziren biak. Ahoa ireki gabe egin zuten bidai osoa etxe txiki batera heldu ziren arte. Etxe hura epela eta txukuna zen. Ondo egoten zen bertan. Janariz eta edariz beteriko mahai batean eseriz ziren biak. Minutu batzuk elkar begira egon ondoren, Jon hasi zen hitzegiten:

—Urteetan egon arren zure ondoan ez nuen inoiz esango ezagutzen zaitudanik.

Maite negarrez hasi zen, hitz horiek bere bizitzaz pentsatzen jarri baitzuten bere burua.

—Zer nahi duzu jakitea? Zergaitik jokatzen dudan horrela?—esan zuen Maitek.

—Bai, badakit ez dela ona inoren bizitzan sartza, baina maite zaitut eta horregaitik dena nahi nuke jakin —dio Jonek itsaropentsu.

—Zuk nahi baduzu kontatuko dizut: nik betidanik dantzaria izan nahi nuen eta izerdi asko isuri ondoren lortu dut dantzarien artean nire izena egotea, baina arlo honetan bakarrik izan dut zoriona, zeren nire bizia malkoz eta odolez bait dago beterik. Nire gurasoak ez nituen inoiz ezagutu, umezurtegi batean hasi nintzen. Lagun maite batzuk nituen han eta beraien biltaratz lortu nuen daukadana, baina beraieka...

Maite negarrez hasi zen Jonen besoartean. Handik momentu batera jarraitu zuen.

—Beraien diru guzia ematen zidaten nire klase izkutuak ordaintzeko. Asko kostatu ondoren lortu genuen umezurtegitik irtetea eta etxe batean ospedatu ginen, han pasatu nituen nire bizitzako egunik zoriontsuenak baina egun batetan, autoan gindoazela, mozkor batek aurretik jo gintuen eta danak hil ziren. Ni oso gaizki gelditu nintzen, ezin bait nuen mugitu, baina biziak. Mundu guzia behera erori zitzaidan. Hil egin nahi nuen, ez nuen bizi nahi baina ez zidaten utzi. Tratamendu gogor batzen bidez ibiltzen hasi nintzen berriro ere. Nire lagunei, dantzari onena izango nintzela agindu nien. Hori lortzen aritu naiz urte hauek. Dantza besterik ez zegoen nire buruan zu ezagutu zintudan arte. Zerbait sentitzen dut zutaz.

Jonek orduan besoetan hartu eta muxu bat eman ondoren, honela esan zion:

—Orain bai, orain ulertzen zaitut. Maite zaitut.

—Beste egun hietan, ez zintudanean ikusi, nire lagunak hil zirenean sentitu nuena sentitu nuen. Ez zaidazu inoiz utzi —esan zion Maitek itxaropenez.

—Ez zaitut inoiz utzik —zioen Jonek begietan egia agertzen zelarik.

—Orain —dio Maitek— zergaitik zaude kezkati?

—Uste dut nire txanda iritsi dela: nik berriz gurasoak eduki ditut eta dirudunak, baina diruaren ezbeharrez konturatuz nintzenean etxetik aldegin nuen mundua ezagutzera. Ezin nintzen beste jendearekin ulertu. Orduan dantza pentsatu nuen. Dantzarekin ez dago jendeen artean ezberdintasunik, denak uler-tzen dira eta horrela hasi nintzen, nire ametsa errealityate bihurtu arte. Nik sentitzen dudana dantza jendeari adierazteko. Baina nire kezka zera da, diruaren ezbeharrez nire gurasoak asko sufriarazi zidaten. Nik ez dut dirua eduki nahi eta dena nire bidaietako lagun misiolari bati bidaltzen diot, orduan, zu nire gurasoak bezalakoa zinela zion nire bihotzeko zati batek,



berak gurasoak jasan behar izan zituen, baina kezka guzi hori joan zait zu hobeto ezagutu ondoren. Badakit ez diozula diruari arretarik ematen, etxe hura eduki arren.

—Nik ere diru guzia umezurtegira bidaltzen dut. Etxe hura umezurtegiko umeek oparitu zidaten bere eskerrak adieraziz.

Etxe hartatik irten zirenean egunsentia zen. Biak bizitzeko pozez gainezka, eta ondoren bere ametsak errealityate bihurtu ziren.

Mundu guzitik egiten dituzte birak Jon eta Maitek. Bien bihotzak bat eginik.

IZASKUN ETXEBERRIA AIZPURUA
3. Saria

Lao-Tse eta Tang Dinastia

Bazen behin Txinako lurralte izugarri bat. Oso zabala eta ederra zen. Bertako jendeak, itsura arraroa zuen bai: begi lu-zatuak, ile beltz-beltza eta jazkera ere ez zen gutxiago: galtza luzeak, edota gona eder apainduak, brodatu eta guzti; Japoneko kimonoen antzera.

Lao Tse neskatxa gazte eta lirain bat zen: 16ren bat urte, ederra, uretxindorraren antzeko ahots goxoa, ile oso luzea, gaua bezain beltza. Changan-en bizi zen, herrixka ederra benetan: etxeak erpinetan, puntaz bukatzen ziren teilatu arraroak; eta etxeen barnealdea, dena apaingarriz ornitua goitik behera. Txinatarren ohiturak ere nahiko harrigarriak ziren. Grazia ematen zuen bai, bazkaltzera esertzen zirenean, kuxin eroso pare baten gainean eta are harrigarriagoa, makiltxo fin horiekin ja-tzen zutenean, trebetasun izugarria behar zen bai hura lortzeko.

Dena dela, lurralte hartako paisaiak ikusgarriak ziren: zabalak, haize goxoa aurpegia laztantzen, arroz landaketak, eguzki gorritsu hura arratsaldearen bukaeran mendien artean bere aurpegia izkutatzen...

Garai honetan, Tang-eko dinastia zegoen, oso dinastia garrantzitsua, eta Tang Tai zen bere erregea: gizon zakar, lodi eta bihotz gabea. 9 emazte eta 14 seme zituen. Hauetatik denak bi ezezik neskak ziren. Bi hauek: Sun Yat, gazteena zen, oso mutiko alaia, bihotz xamurra zuen eta ez zitzaiak gudak atsegin. Eta Chih Huang-ti, zaharrena, aitaren izpilu bikaina zen. Tang-eko dinastia oso berekoia zen, bere imperioa haun-

ditu nahi zuen, boterea lortu, eta hau borrokak eginez lortzen zuten. Beti borrokak, hilketak, odola. Sun Yat-i ez zitzaion hau batere gustatzen, baina ez zeukan beste biderik.

Lao-Tse nahiko nagusia zen jadanik lana bilatzeko eta hori egiten ahalegindu zen gau eta egun. Bere familian 9 anai-arreba ziren. Denak bera baino gazteagoak eta aita gaixorik zegoen; ama berriz, erditzerakoan hil zen. Denak arroza biltzen lan egiten zuten, gelditu gabe eta ondoren arroz katalukada bat janez nahikoa zuten. Lao-Tse-k abesti ederrak kantzen zizkien bere anai arrebei, hauek liluraturik lo sakonean utzi arte. Beraz, Lao-Tse zen, modu batez esanda, etxe hartako bihotza.

Goiz baten herriko belargilearengana zihuala, herriko enparantzan etxetxo baten antzeko kabina bat ikusi zuen; lau gizonen artean zeramaten eta honen barnean Tang Tai erregearen alaba zihoa. Bitxiz beterik, zetazko jantzi brodatu bat soinean zeramala. Lau gizonek emakumearen aginduak betetzen zituzten. Lao Tse-k hura ikustean pentsakor geratu eta ondoren bidea jarraitu zuen. Belargilearengana joan eta sendagai bat eskatu zion, baina gelatxo hartan sartu zenean, harriturik geratu zen bere aurrean nor eta erregearen alaba ikustean. Erreberentzia moduko bat egin eta kanpora irteteko prest zegoelarik:

— Ez, neskato. Ez zaitez joan. Ni baino lehenago iritxi zara.

— Berdin dio, andere. Ba... baina zu, erregearen alaba zara eta...

— Ez du axolarik. Itxaron! itxaron iezadazu atarian. Ados?

— Ondo da, andere, ondo da.

— Tira, ez urduritu, ez da ezer eta.

Ondoren belargilearekin hitzegiten hasi zen:

— Aita Tang Tai oso gaixorik dago eta zu oso sendagai onak dituzula esan didate. Sendagile errealkak ez daki aitak zen duen eta eskertuko nizuke zuk gaur arratzean jauregitik igaroko bazina.

— Ohore handia izango da niretzat, ene andere. Gustora egingo dut.

Estutasun giro hartatik kanpo, anderea atarira irten eta:

— Hemen zaude oraindik, neskatxa?

— Bai, andere, zuk esan bezala.

— Nik Mao Chang dut izena eta zu Lao Tse zara, ez da ala?

— Bai, Mao Chang, beno... andere. Bai, ni naiz.

— Asko entzun dut zutaz eta are gehiago zure ahots goxo horretaz. Entzun: ez dugu abeslari errealkik, baina nire etxeak musika asko atsegina zaie eta orain aita gaixorik dagoenez, asko atsegingo zitzaiok zuk abestitxo batzu kantatuko bazenitu.

— Ni, Mao Tsang? Ni jauregian eta erregearentzat abesten? Hori zoragarria da! Noski egingo dudala. Atsegina handiz gainera!

— Ondo da. Bihar jauregian ikusi nahi zaitut zure familiaren. Agur.

Lao Tse pozez zoraturik aldegin zuen etxera eta berria azkar eman, bai horixe. Hurrengo goizean jauregiruntz abiatu ziren. Liluraturik geratu ziren hainbeste aberastasunen artean: korridore hura, plaketazko marrazki hiaezen; lurrean zabaltzen zen tapiz gorri hura, urezko hariz brodatua; sabaian zeuden kristalezko lanpara hiaeak, txinatar porzelanazko txarro edota plater baliotsu hiaeak; dena zoragarria zen. Korridorearen bukaerara iristean, zeruraino luzatzen zen eskailera ikaragarria zegoen eta honen azpikaldean, famili erreala gure familiaren zain.

Mao Chang aurreratu zen lehenengo eta erreberentzia egitean, Lao Tse hartu eta bere anai-arrebengana hurbildu zen. Presentazioa egiten hasi ziren. Lehenengo neskek, banan banan, Lao Tse agurtu zuten. Ondoren Chih Huang-ti agurtu zuen, baina honek begirada maltzur bat bota zion. Baina Sun Yat-engana iristean liluraturik geratu zen, mutil zoragarria zen;

Sun Yat-ek berriz, gosotasun handiz begiratzen zuen. Bi gatzetek beren begiradak gurutzatu ondoren, agurtu ziren.

Aurkezpena egin ondoren, beraien logelak eta jauregia erautsi zizkion Mao Chang-ek Lao Tse-ri. Musika gela eta lortegi izugarri bat zituen etxe hark.

Gaua iritsi zen eta Lao Tse ohera zihuala iluntasun eta isiltasunaren artean, musika bat entzun zuen. Musika hark etxe hartako deabrua zirudien. Ondoren farrak izan ziren eta ge-roago Bummm!, estanda izugarri bat. Lao Tse beldurturik zegoen eta berehala ohera sartu zen. Ondoren ametsetan hasi zen: amets hartan, deabrua zegoela ikusi zuen. Deabru maltzur eta boteretsu bat, baina deabrua famili hartako gorputz batean sartzeko zorian zegoela ikusi zuen: Tang Tai erregearen gorputua hartu nahi zuen. Gainera Sun Yat-engana zoritzarra etorriko zela ikusi zuen eta Chih Huang-ti, bere aitaren antzera, gerrateak sortzen hasiko zen, heriotzak, hilketak, odola, zoritzarra, lurralte hartara etorriko zen. Eta azkenik urezko iruditxo bat agertu zen, eguzkia bezain argitsua, amets hura isipilu baten antzera mila pusketetan birrintzen zuelarik. Hasiera baten, Lao Tse-k ez zion inolako zentzurik ikusi, baina geroago ba.

Hurrengo goizean bere jantzi dotoreena jarri eta abesteko prestatu zen. Tang Tai-ren aurrean jarri eta instrumento baten doinu goxoarekin bat eginez abesten hasi zen. Urretxindorraren kanta zen hura, zeruko aingeruen ahotsa, edonor iluratzeko zen. Ikusgarria. Famili osoak goxotasun eta lasaitasun handiz entzuten zuen Lao Tse, ahal zuen ongi egiten saiatzen zen. Eta kanta amaitu ondoren:

— Kaixo, Lao Tse. Sun Yat naiz ni. Ezagutzen nauzu, ezta? Zoragarria zara, Lao Tse.

— Eh... zer... Beno, ni... nik bai, ezagutzen zaitut.

— Aditu, Lao Tse, oso ederra da kantatu duzun abesti hori. Bainan ni... zu... Beno, tira, berdin dio. Ez du axolarik.

— Zer? Zerk ez du axolarik? Kontatuko didazu?

— Ez, ez du axolarik. Esango dizut beste mementu batean. Ados?

— Ondo da, baina ez nazazu ahaztu.

Derrepente erregea urduritzen hasi zen. Gorritu egin zen eta izerditan jarri. Garraiski ero baten antzera eta begiak ireki zituenean, gorri-gorri eta disdiratsuak zituen. Beldurra sortu zen senideen artean. Deabru bat zirudien. Ero moduan jarraitzen zuen eta Lao Tse-k korrika aldegin zuen. Amets hura besterik ez zitzaior burura etortzen, amets itsusi eta beldurgarri hura. Lorategira joan eta han ikusi zuen disdis josia emakume eder eta gazte bat. Espiritu bat zen, ondoren hitzegiten:

— Lao Tse, Lao Tse, entzuten al didazu?

— Bai, andere, baina nor zara zu?

— Ni Mao Tse Tung naiz. Tang dinastiaren espiritua. Nik bidali nizun amets hura. Zuk badakizu zer gertatuko den, eta badakitzu urezko irudia bilatu behar duzula lehen bait lehen. Hori baita Tang dinastia salbatzeko bide bakarra.

— Bai, baina non aurkituko dut irudi hori?

— Haranean, arrozeko mendi sakratuko ahoaren gainean, eguzkiaren gordelekuaren, bertako zuhaitzeko fruitu bat izango da zure urezko irudia.

Hau esanik, desagertu zen. Bainan agerturiko lekuaren armadura bat, ezpata eta hauts magiko batzu utzi zituen. Lao Tse gerlari adoretsu batetan bihurtu behar zen. Beraz ez zuen hau ulertzten, baina esandakoa bete zuen; dena Sun Yat salbatzeagatik egin nahi zuen. Bainan ametsetan ikusi bezala, guda sortu zen. Tang dinastiako Tang Tai eta Chih Huang ti-k guda hasi zuten. Erregea gero eta okerrago zegoen, Sun Yat-en antzera.

Egoera hau ikusiz, Lao Tse-k bere bidaia hasteko prestatu zen. Lehenengoz bere armadura jantzi zuen; eguzkiaren izpiek diskiz egiten zuten honen gain. Oso gogorra zen. Ondoren burukoa jarri eta bere ezpata ere hartu zuen. Ezpata berezia zen, espiritu hark esana bezala, eta hauskaitza gainera. Inork ima-

ginatu ezin duen ezpata. Geroago, eguzkia gainean zuelarik, guztiz harroturik luraren jabe bezala, korridorean zehar Sun Yat-engana joan eta esan zion:


—Sun Yat, joan beharra dut. Misio bat bete behar dut famili hau salbatzeko. Urrezko fruitua bilatu et ondoren itzuliko naiz zugana.

—Baina... baina zergatik zu! Zer egiten duzu hainbeste apariatu soinean dituzularik? Itxaron, ez zaitez joan! Ez, Lao Tse!

Baina Sun Yat-en hitzak haizeak eraman zituen eta atari ondoan, han ikusten zen guztiz soldatu baten irudia, argi handiz inguratua.

Lao Tse harrizko kaleetan zehar Zubira iritsi zen. Zubi ezeki bat zen, soka lodi eta egurrez egina. Eta honen azpian zulogune izugarri bat. Bainan Lao Tse-k errezz igaro zuen. Lehen esan bezala, guda hasirik zegoen eta mendi gailurretan milaka bandera ikusten ziren. Danbor eta tronpeta moduko doinuen artean. Bainan baso erdira iristean, isiltasun sakon haren artean, soldaduak txinurrien antzera irteten hasi ziren. Lao Tse-k bere ezpata atera eta borrokan hasi ziren. Inor baino borrokalarri hobea zen; gazte zenean, bere aitak erakutsi zion. Garraisi, ezpata doinu eta odolaren artean, ez zen hora ez gira atsegina. Derrepente, Lao Tse-ren atzekaldetik soldadu izugarri bat agertu zen. Bere ezpata altxatu baina... Lao Tse-k mugimendu azkar bat egin eta Zasss! Burua kolpe batez moztu zion. Isiltasuna nagusitu zen orduan eta Lao Tse-k amen batetan akabatu zituen soldadu guztiak. Bere ezpata altxatu eta garraipena aldarrikatu zuen. Bere bidea jarraitu zuen, ibili eta ibili. Azkenik arroz landaketa batera iritsi zen. Eta geroago etxolatxo bat ikusi zuen. Baimena eskatu ondoren, barnera sartu eta arroz katilukada bat eskatu zuen. Bertan gizon bat zegoen. Begi maltzurrekin begiratzen zuen eta irrifarre beldurgarri bat zuen bere ahoan.

Sorgin giroa zegoen etxola harten. Arroza jan ondoren, lo kuluxkada bat egiteko baimena eta lekua eskatu zion eta honek gustora eskaini. Bainan Lao Tse-k kontu handiz bigilatzen zuen. Etzanda zegoelarik, orro batzu entzun zituen. Gero eta indartsuagoak ziren; ondoren, hegoak mugitzean, aireak sortzen duen zarata entzun zen. Gero, kaskabel suge baten antzeko doinua eta azkenik garraisi izugarri bat. Lao Tse oso urduri zegoen eta ez zen atzera begiratzen ausartzen. Badaezpada eskua ezpata gainean jarrik zuen eta esku bat besaburuari jar-tzen ziotela ikustean... ezpata atera eta tximista baten antzera bira eman zuen. Bertan ikusi zuena sinesgaitza zen: bere aurrean herensuge nazkagarri bat zegoen. Eraso egiten zion eta Lao Tse harriturik geratu zen hau ikustean. Herensugea hain zen zakarra, mementu baten burua luzatu eta teilatua puskatu zuen, barkilua balitz bezala. Lao Tse borrokan hasi zen, baina izaki honen azala gogorregia zen. Ondoren ispiritua emandako hautsa gela hartan zabaldu zuen. Herensugea itotzen joan zen garraisiaren artean; eta azkenik hauts bihurtu zen. Lao Tse azkar baino azkarrago joan zen gela madarikatu haratik. Orain aire garbia arnasten zuen, bideetan zehar ziohan eta ordu pare batzutara erraldoien antzeko mendi batzu ikusi zituen. Aitonak hitzegintz zion behin mendi hauetaz, eta batez ere «Arrozko Mendi Sakratua»-z. Hura zen bilatzen ari zen mendia. Arrokatsua zen eta oso belartsua. Lao Tse izerditan goruntz abiatu zen. Harriz harri izerditan... la goian zegoela, kobazulo beltz eta ikaragarri bat ikusi zuen. Eta iristen zegoelarik, hara non ikusi zuen disdis egiten zuen zuhaixka bat. Honen atzetik eguzkia gorriturik bere aurpegia izkutatzen ari zen. Zuhaixka hura BONSAI bat zen. Zilarrezko hostoak zituen, eta bere fruitua ezar baten antzera, urrezkoa. Zoragarria zen. Lao



Tse-k fruitua hartu nahi zuen, baina argitasun hark itsutzen zuen. Ondoren izugarritzko arrano bat parean jarri zitzaion. Zilarrezko lumak eta begirada maitzurra zituen. Honek fruitua hartzen ez zion uzten, baina Lao Tse-k ezpata atera eta arranoa hil zuen. Azkenik, permadura baten ondoren, fruitua lortu zuen. Gero, eztanda batekin, lurra erdititu egin zen eta BONSAIA desagertu egin zen. Oraindik eguzkia berta zegoen eta Lao Tse-k gailurrean jarri, fruitua esku batez altxaturik:

—GARAIPENAAA!!— oihukatu zuen.

Jauregirako bidea azkar egin zuen eta iritsi zenean, dena suntsiturik aurkitu zuen. Aurpegian tristura ikusten zitzaion eta malko batzu ere ba zituen. Jauregira sartu eta odola besterik ez zuen ikusi. Mementu hartan Sun Yat-engana bakarrik pentzatzen zuen. Bainan burura zerbaite etorri zitzaion. Guzti hura konpontzeko urrezko fruituari zukua ateratzeari besterik ez zen behar. Zukua lortu eta edan egin zuen. Lao Tse sugar batez inguratzen zen. Ondoren soldadu izatetik uretxindor eder batetan bihurtu zen. Izugarria zen. Liluragarria, kolore hiaeik, tamaino hura, begirada saminkor hura. Jauregi osoa argi batez inguratzen zen. Abesti hura bazter guztieta sartzen zen. Guzti hura berriro jaio zen. Erregea, bere familia eta Sun Yat. Ondoren, berriro soldadu batetan bilakatu zen. Burukoa kendu eta gauaren mantu luze hura haizearekin astintzen zen. Sun Yat hurbildu eta Lao Tse laztantzen hasi zen. Bikote alaia zen hura. Ataritik irudi bat ikusten zen sugar baten inguruan.

Oraindik Changan-en Lao Tse-ri buruz hitzegiten da: «Tang dinastia salbatu zuen gerlaria»-z.

M.^a JOSE ARRONA CARRASCO
3. Saria

E MAILA

Kanpoko mundua

Marea bizien azken eguna zen. Ibaiko arrain denak gogo handia zuten ordurarteko itsas gora-behera guztiak behingoz bukatzekeo.

Euskal Herriko ibai bat zen, oraindik garbia zegoen ibai horietako bat. Arrain denak ibai horretara joaten ziren bizitzera, ospe handia bait zuen eta arrain herrialdeen hiriburua baitzen.

Ibai horretako alderdi sakon batean arrain gorridun familia handi bat bizi zen. Ama, aita eta beren hamar umetxoak bizi

ziren. Beraien lurradea lasaia zen, ez zen arrantzale asko joaten zenetarikoa.

Gurasoek beren haurrei ur haietatik kanpo bizi zen gizona nolakoa zen kotatzen zieten: Izaki handi bat zen, hiltzailea, familia hartako aiton-amon eta asaba asko erahil zituen. Oso argiak ziren, zeren eta janaria jartzen zuten arrainak harrapatzeko. Umeek beldur asko zioten erraldoi horiei, eta debekatuta zuten ibaiko ohizko janaria ez zen beste zerbait jatera hurbiltzea, edozein gauzarekin beren bizia gal zezaketen eta.

Jadanik ibaia lasaitu zen. Arrain denak udaran euliak bezala beraien zuloetatik atera ziren, eta turisten antzera, ibaidena bete zuten kolore askotako arrainak ikusten ziren ibaitik salto egiten bata bestearen atzetik eta beraien artean jolasten. Laisster uda helduko zen, eta itsasora buelta bat ematera irtetzen zuten, itsasontziak izango zuten oztopo bakarrak animalitxoentzat.

Arrain gazteak asko atsegin zuten piraguak ibaian ibiltzen zirenean, beraien gainetik saltotzea eta kirola egiten ari zenari susto bat ematea, baina hala ere kontu handia izan behar zuen gizonarekin, edozein egunetan amu bati hortzaka egin bait liezaiokete, edo eta piragua gainean zebilen ganberroren batuk arraunarekin jo eta beste mundura bidali.

Uda luze bat pasa ondoren, gauzak aldatzen hasi ziren. Arrain guztia beraien haitzuloetan gorde ziren; gizonak ibai haitetara urbiltzen hasi bai ziren eta beren lagun edo senideak hiltzen hasi.

Lehen aipatu dugun familiar ez zen oraindik inor falta. Denak beldurturik zeuden, baina batera. Gutxien izuturik zegoena denetatik txikiarena zen. Ilabete gutxi zituen eta ez zuen sinesten gizonak holako gauzarik egin zezakeenik. Familiakoak ohartzen ez zirenean buelta bat ematera irtetzen zen, hain bat-karti zeuden tokietara. Lurralde guztian ezer axola ez zitzainen karramarro batzuk bakarrik gelditzen ziren. Arrain gazteak ez zuen, beraz, inor une haietan berarekin hitzegiteko.

Baina, etxetik ihes egin zuen haietako batean, txalupa bat pasatu zen eta zintzilik zerbait zeraman. Sare bat zen. Arraina ez zen konturatu eta berehala harrapatu zuten. Sare berean beste bi arrain ezezagun zeuden, auskalo nongoak.

Arrain txikiak ez zekien zer egin. Bere etxeko sarrera urrunten ikusten zuen, bera harrapaturik zegoen bitartean; gainera, bera familia bila hasiko zen, eta ez zuten jakingo hil egingo zenik.

Halako batean, gelditu egin ziren eta arraina plastikozko poltsa zikin batetan sartu zuten. Bera mugitzen zegoela ohartu zen, norbaitek eramatzen zuela. Ondoren, plastikozko balde orlegi batetara bota zuten. Han beste arraza batzueta arrainak zeuden, ondo arraroak, beltz eta zuriak, kolore ezberdinak mantxadunak, arraiatuak, beltz-beltzak, etab.

Berak itzal handi batzuk ikusten zituen pasatzen, eta noiz behinka gauza borobil bat azaltzen zen kuboaren gainetik, bigi eta ahoa zuela, gainean zerbait beltza zuelarik, berak jaten zuen belarraren antza zuena. Berak ez zekien, baina merkatu batean zegoen salgai. Gauza borobil haietako pertsonen burruak ziren, berak hainbeste aldiz beraietaz hitzegiten entzun zituenak, nahiz eta berak ez ezagutu.

Arraina pixka bat izuturik zegoen, baina kuriositateak izu harren zati on bat kentzen zion, eta urez betetako poltsa ba Ordu batzuk pasatu eta esku batek arrainari hartu zion eta urez betetako poltsa baten sartu zuen. Poltsa horretatik kalea ikusten zuen, eta erraldoi pila bat inguru. Norbaitek eramatzen zuen arraina, duela denbora gutxi beretaz jabetu baitzen. Arrainek ez dituzte ezagutzen salerosketen kontuak, beraz, hau ez zen gehiago izango.

Zenbait kale pasa ondoren, ate batetik sartu eta eskailera-tan gora joanez, etxe batetara eraman zuten. Liburuz batetako gela batean sartu eta poltsa hura arrain-ontzi batetan hustu zuen. Han bere antzeko arrain pila zeuden. Arrain auzo oso bat sortua zegoen. Gure arraintxoan pozik zegoen norbait bere

antza zuena ikustean eta unguuan landareak egotean. Belarhaietako bati hortzaka egitera zihoaean, ia hortzik gabe gelditu zen gizajoa. Ez ziren benetako landareak, artifizialak bai-zik. Airetik norbaitek papalezkogauza batzuk bota zituen. Arrain «heldu berria», asko harritu zen bere ingurukoak sustantzi arraro hainbat jaten ikustean. Orlegi, marroi, laranjatu eta arroxak ziren paper zatiak. Bere ondokoek etengabe jaten hasi ziren, eta beraietan hainbeste gogo ikustean, bat probatzea era-baki zuen. Oso goxoa zegoen. Bere etxe ondoan kokaturik zegoen dendaran zeuden goxokien gustua zuen. Berehala han gelditzen ziren zati guztiak jan zituen.

Egun batzuk pasa ziren, eta gure arraina nahiko asperturik zegoen. Etengabe erraldoi horietako asko bera zegoen gelara joaten ziren. Aulkia haundi batetan exerten ziren eta egunero han egoten zen erraldoi batek ahoa ireki erazi eta hortz txuriak edo ez hain txuriak ikusten hasten zen. Gure arraina arrainontzi hartatik beti gauza berdinak ikusteaz nazkaturik zegoen.

Astern bat pasa ondoren, beraietako bat nola hil zen ikusi zuen arrainak. Jadanik hain ezaguna zuten erraldoi hark buztanetik heldu eta kumunetik behera bota zuen arraina. Asperturik zegoen arrainak hori ikusi zuen, eta ongi zekienez alkantarilara heltzen ziren zikinkeri denak nondik zetozent, ideia bat bururatu zitzaison.

Hurrengo egunean, hilarena egin zuen. Dentistak, beste arrainarekin egin zuen bezala, kumuneko zulotik bota zuen. Bonbarri tira egin bezain laister arraina hokietatik zehar zioho. Nahiko zaila egin zitzaison hodiaren bihurguneetan ormaren kontra ez jotzea galeraztea, abiadura handian bait zioho.


Bide luze bat egin ondoren, nahiz eta abiaduragatik motza iruditu, ibaira heldu zen. Arrainari mareoa joan eta gero, non zegoen konturatu zen: Bere etxe baino lau zulo lehenengo. Ahal eta azkarren bere etxe sarrerara heldu zen. Denak oso pozik jarri ziren hora ikustean, non egon zen jakin nahi zutelarik. Hark ezin zuen esan hau baino gehiagorik: «Erraldoi horietako baten etxearen egon naiz, beste askok bisitazen zutena bere eskuak ahoan sartzeko. Nola edo hala irten dut, eta hemen nago berriro».

Jadanik negua zen, eta arrantzale guztiak joan ziren ohizko lekuetara. Gure arraintxoan ez zen hain txikia, eta kontu handiagoarekin ibiltzen zen gizona agertzen zenean. Baino oraindik ez zekien gauza bat. Ikusi zituen erraldoi ezberdin haietak al ziren gizonak? Edo beste itxura bat zuten?


Bazekien behintzat, bera zela izaki haien eskuetatik ihesi zen gutxienetako bat, eta ez zirela askoz gehiago salbatuko.

Pozik egon daiteke ez ziolako amu bati hortzaka egin, bestela oraindik ez genuke topatuko nonbaiten dagoen ibai garbi horietako batetik bueltaka.

INGE UGALDE IRIONDO
Igo Saria



SOLDADOS



- fin - NENSO

KASTIGUA (VI)



Eskuak berokiaren patriketan sartuta eta lurrera begira, hobeki babestua bezala sentitu zen. Lagunen elkarrizketak gardenki ailegatzen zitzaizkion adimenera, baina bere arreta ez zegoen haien kontuetara jarrita, une bakoitzean hizlaria nor zen igartzera baizik. Ez zitzaion ariketa erraza gertatu, izanez ere denek batera hitz egiten zuten, eta abots pila nahasten zitzaion gogamenean. Hala ere, zeharkalearen tarte dexentea iraganik, bere buruarekiko jolas harekin helburua betetzea lortu zuela juzkatu zuen, lagunartetik une batez «desagertza» hain zuzen.

Eta hala, indarberriturik murgildu zen ostera gizartearen zurrubiloan. Lagun batzuek, Orrondo buru zutela, geografiazko eztabaidea bat asmatua zuten Oleronen kokaguneaz; zenbat kilometrotara zegoen Oleron erresumako hiriburutik, zenbat kilometro zeuden Oleronetik beren hirira, zenbat biztanle zituen Oleronek, nolakoak ziren Oleron inguruko karreterak, eta halako galderak sortuz eta erantzunez ziohaizen. Ondoren besteek, Paulo eta Fernandoren inguruan bildurik, arazo politikoak zuten mintzagai: beharginen grebaren arrakasta, azken egunetako atxiloketak, presoen aldeko kanpainaren diru bilketak, eta halakoak jorratz egiten zuten bidea.

Josu L.-ek batzuekin eta besteekin ihardun zuen zeharkale muturrera heldu bitartean, eta aldi berean bere buruarekin, hurrengo basoerdia non hartuko ote zuten asmatu nahiz. Kontu hark, ordea, ez zuen askorik kezkatzen; bere kezka nagusia norabidearekikoa zen, eta alde horretatik lasai zegoen, gauzak berak pentsatu bezala ateratzen ari ziren eta. Arazoak bidegurutzera iritsitakoan sor zitezkeen, norbaitek Manuela etxera aldeko jarrera azalduz gero. Baina ez zuen uste inork zalantza egingo zuenik erabaki hartaz, harako ibilbidea gero eta bestalderago geratzen ari zitzaienez gero. Berak zihurtzat ematen zuen bidegurutzean Kale Nagusitik joko zutela, baina lehenago kantoian «Nautilus»-era sartuko zirela sumatu zuen, eta luze gabe Manuelekin topo egingo zutela.

Eta halaxe gertatuko zela zirudien, tabernari zegokionean bederen, bada Orrondok eta haren solaskideek jadanik «Nautilus»-eko sarrerarantz okertua zuten beren pausoa, eta berdin besteek ere haien atzetik, handik gutxira mostradorearen aurrean ohizko tropiloa osatuz.

Josu L.-ek bere ingurua begiratu zuen gogoetatsu. Arestian Plaza Nagusitik abiaturiko zortzi lagunak bertan ziren, beraz inor ez zen bidean atzean gelditu. Horrek alde batetik poztu egin zuen, eta bestetik pentsa erazi zion, ohizko itxurak gordetzen ibili arren, denak zeudela zerbaiten esperoan, denak zeudela iluntze hartako izar gorena noiz agertuko zai. Hala ere, harrituta zeukan haien soseguak, ez bait zuen larritasunik antzematen haien jokaeran. Akaso neurriz gorako poztasun bat ihesari buruz hitz egiterakoan, baina besterik ez, auzia erabakita egongo balitz bezala, eta Manuel bidaia luze batetik itzuliko balitz bezala. Iruditzen zitzaion errazegi irristatzen zirela ohizkora.

Agur t'erdi,

Eskutitz honen bidez Kultur Elkarteak argitaratzen duen "DEBA" aldizkarian zure denda iragartzeko prest bazaude jakin nahi izango genuke. Horrela balitz, honako aukera hauek eskaintzen ditugu:

1.- 3 motatako iragarkiak

Kokapena.....	Neurriak	Argitarapen bakoitzeko prezioak
Orialdearen oinean	6 × 8 zm.	3.000 pztas.
Orialdearen oinean	6 × 19 zm.	6.000 pztas.
Orialdearen 1/3	12 × 22 zm.	10.000 pztas.


(zabaleran edo goitik behera)

2.- Bai textua, bai diseinua, iragarlariak erraztu beharko lituzke.

3.- Ordainketa aldizkaria kaleratzean egingo litzateke. Iragarlariak ale bat jasoko luke.

Besterik gabe eta zure erantzunaren zain, agurtzen zaitugu.


ALDIZKARIAREN BATZORDEA




"MU BUENO ELÁNGAN!"



""RASSSSSSSSS"



""RASSSSSSS."



Es lo que se lleva



Aldean eraman alde guztietara

- La Tarjeta de la Caja de Guipúzcoa es lo que hay que llevar para estar al día.

Para no tener problemas de dinero.

Para disfrutar de todos los servicios de la Caja de forma automática. Sin problemas de horario.

Para pagar en cualquier establecimiento sin llevar dinero en efectivo. Con toda comodidad.

Porque la Tarjeta GK es de lo más práctico.

Si aún no la tiene, consígala. Porque la Tarjeta GK de la Caja de Guipúzcoa es lo que se lleva.

- Gipuzkoako Kutxako Txartela aldean eraman egunera egoteko.

Diru-arazorik ez izateko.

Kutxako zerbitzu guztiak eskura izateko modu automatikoan. Ordu-arazorik gabe. Edozein dendatan ordaintzeko modua izateko, dirua aldean eramatzen ibili gabe. Eroso-eroso.

GK Txartela duzu praktikoena.

Oraindik gabe bazaude, eskuratu azkar.

Gipuzkoako Kutxako GK Txartela aldean eraman alde guztietara.

GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPÚZCOA

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Si quieres un buen plan cuenta con la Caja.

Para que encuentres el Plan a tu medida, sólo tienes que decidir cuál o cuáles te convienen más.

Para que en el futuro, las cosas salgan como tú las hayas previsto.

Como tú quieras.

PLAN DE PENSIONES:

Rentable, desgravable y a tu medida. Es dinero con futuro.

PLAN DE AHORRO ASEGUARADO:

Muy interesante y desgravable. Es dinero que crece seguro.

PLAN DE AHORRO:

Un interés grande para un ahorro pequeño. Es, poco a poco, dinero que va a más.

Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen.

Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA:

Errentagarria, zergaringarria eta zure neurriko. Etorkizuna duen dirua.

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA:

Oso interesgarria eta zergaringarria. Seguro hazten den dirua.

AURREZKI-PLANA:

Interés handia aurrezki txikiarentzat. Piskanaka gehiagotzen den dirua da.

AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL